

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA ELGETAN

10.SAIOA

DATA: 2023-03-01
PARTAIDEAK: <ul style="list-style-type: none">- Herritarrak: 10 parte hartzaile- Udaletik: Ibai Larrañaga (Ingurumen zinegotzia), Iraitz Lazkano (alkatea)- Goiener: Oier Etxeberria- Emun: Uxune Alustiza

KOMUNITATEAREN ETORKIZUNEN AUKERAK

Hiru taldetan banatuta dinamika bat egin dugu Elgetako maparekin eta proiektu aukera desberdinen papertxoekin. Helburua izan da esku artean dugun instalaziotik burua altxatu eta beste ze proiektu egiteko aukera dauzkagun ikustea. Aurkezpena bi aste barru izanda, energia komunitate baten potentziala buruan fresko eramateko ere balio izan du. Aipatu diren aukerak, posible eta ez hain posible direnak:

- Biogasa sortu: ahate eta galeper enpresetako zirinekin.
- Haizerrota txikiak herriko hainbat gunetan: udalak industrialdean duen lursailean, edo haize-tokietan.
- Herrira ura igotzeko garai bateko ponpak erabili gaez ura igotzeko, eta, egunez, ur horren beheranzko saltoekin energia sortu.
- Biomasa-galdara kolektiboak erosi eta instalatzeko laguntza edo bideratzea.
- Biomasa sortu inguruko pinudiekin: jabetza pribatua dira denak, baina eurekin lanketa egin daiteke, biomasa sortu eta bertako basoak eta paisaia berreskuratzeko.
- Mugikortasuna: autoa partekatzeko ekimenak (gehienok joaten gara Bergarara).
- Aholkularitza bulegoa: herritarrak sentsibilizatzeko, energiaren kontsumoa murrizten laguntzeko, etxebizitza birgaitu edo isolatzeko laguntza, fakturretan nola aurreztu, pobrezia energetikoan egon daitezkeenekin lanketa...
- Zaldibar aldera dagoen presa aprobetxatu instalazio hidroelektrikoa egiteko (Eibarrera doa ura).

ENERGIA PROIEKTUA

Robertok aurkeztu digu lantaldean egin duten lanketa: Goienerren Excel eredu hartu, egokitu eta hainbat datu sartu dituzte.

Interneteko webgune batetik datu errealak hartuta, kalkulatu dute frontoiko instalazioaren bi zatiek, mendebaldera dagoenak eta ekialdera dagoenak, zenbat energia sortuko duten.

Erosketa 0,25€/Kwh eta konpentsazioa 0,15€/Kwh prezioak proposatu dituzte.

Sortzen den energiaren %70 auto-kontsumituko dela jarrita, eta kooperatibari aurrezpenaren %50 itzuliko zaiola jarrita (kuota kontzeptuan), proiektuan parte hartzeko bazkide erabiltzaileek egin

beharreko **inbertsioa, aurrezpena eta kuota hau izango da** (borondatezko ekarpen gisa joango dena kooperatibara):

Paketea	Hasierako € ekarpena	Urteko aurrezpena	Kuota
0,5Kw	650€ inguru	150€ inguru	75€ inguru (aurrezpenaren %50)
1Kw	1200€ inguru	XX	XX
1,5Kw	1900€ inguru	XX	XX

Diru laguntzak

EVEren diru laguntza jasotzen bada, normalean proiektuaren kostuaren %50 izaten da. 27.000€ inguru jasotzen baditugu, horren parte bat instalazioan parte hartzen ari direnei nolabait bueltatu behar zaiela adostu dugu, inbertsioaren amortizazio urteak jaiste aldera. Bi aukera egon daitezke:

- Hasierako inbertsioaren zati bat bueltatzea. Borondatezko ekarpena den heinean, posible da.
- Kuota aurrezpenaren %50 izan beharrean, %25 izatea denbora batez.

Kuotak nola kalkulatu

Elektrizitatearen prezioa oso aldakorra denez, kuota urtean behin berrikustea adostu dugu. Azken sei hilabeteetako edo urtebeteko prezioen batez bestekoa atera, eta horrekin kalkulatu da datorren urte osorako kuota.

Zenbat jende beharko den instalaziorako

Aipatutako datuekin, hau da estimazio bat: 71 pertsona (CUPS) behar dira:

- 0,5Kw: 55
- 1Kw: 13
- 1,5Kw: 3

AURKEZPEN EKITALDIA

Martxoaren 15ean, asteazkena, 18:30etan izango da Espaloian. Enaitzek aurkeztu dizkigu martxan daudenak eta egiteko daudenak.

Deialdia egiteko:

- Gonbidapena buzoneatu. Martxoaren 9an 18:30etan geratu gara.
- Elkarreei eskatu euren kontaktuei bidaltzeko gonbidapena.
- Goienan aurreko ostiralean artikulua.
- DVn ere artikulua.

Aurkezpen egunean:

- PPTaren egitura aztertu dugu eta ados. Azken diseinua falta zaio, diapositiben kolorea eta abar, Koldok erreparatuko du.
- Esku orria: ze eduki jarri aztertu eta adostu dugu.
- Bukaeran, partaideei hainbat aukera eskainiko zaizkie, euren konpromisoaz hausnartu dezaten:
 - o Besterik gabe aurkezpenetik etxera joango naiz.
 - o Bazkide egingo naiz, oraingoz.

- Bazkide egingo naiz + proiektuan interesa agertuko dut.
- Bazkide egin + proiektuan parte hartu.
- EBK lantaldeetara edo talde sustatzaileran animatuko naiz.

Proiektuari buruzko ze datu eman adostu dugu, sinpletik jotzearen:

- Zenbat Kw-ko instalazioa izango den.
- Zenbat euro jarri behar duen pakete bakoitzak, tarte bat esan, adibidez, 450-650€ artean.
- Ze aurrezpen izango duen bakoitzak, baita ere tarte bat eman.
- Kuotaren berri ere tarte bat eman.
- Diru laguntza etortzen denean, amortizazioa jaisteko erabiliko dela aipatu, 6-8 urtekoa izan dadin.
- Zenbat jende/CUPS behar den.

ERAGILEEKIN ERRONDA

Gazte asanbladarekin egon da komunikazio lantaldea. Harrera ona izan du, aurkezpen ekitaldira etorriko dira.

PNVrekin egin zen bilera. Oro har, harrera ona. Eskatu zitzaien konpromisoa hartzeko, maiatzeko hauteskundeetan edozein dela ere emaitza, EBK babesten jarraituko dutela. PNV barnean hitz egin behar dutela esan zuten. EBK sortzeko prozesuaren finantzazioari buruzko zalantzak agertu zituzten, baina hori udalera bideratzeko eskatu zitzaien.

Martxoaren 9an, jubilatuekin bilera egingo da 18:00etan. Aurretik egon ginenez, aurkezpena jendea ekartzeko aprobetxatuko da eta heldu jendearengana iristeko.

Udal plenoa otsailaren 28an izan behar zen, baina atzeratu egin da. Ez dago hurrengo datarik.

LANTALDE JURIDIKO - ADMINISTRATIBOA

Bergarakoen estatutuak kontsultatuta, estatutuen zirriborroa prest dago. Erredakzioan zalantza batzuk daude, Emunek lagunduko du.

Notaritzarekin harremanetan jarrita.

Banketxeko eta notaritzako tramiteak Iraitz ez den beste pertsona batek egitea komeni da, alkatea ere badelako, nahiz eta herritar gisa ere parte hartzen ari den komunitatean.

Fagorreko Aritz Otxandianorekin hitz egin du Ibaik, eta esan dio Fagor ari dela birplanteatzen bere parte hartzea kontseilu errektoreetan, komunitate asko ari direlako sortzen. Beraz, bere diru ekarpena egiten jarraituko du, baina KEn ez du parte hartuko.

Oraingoz, hiru bazkide laguntzaile dauzkagu:

- Udala: 4000€-ko ekarpena.
- Fagor Taldea: XXX€
- XX enpresa: 1000€

Azken horiek, ez dute kontseilu errektorean parte hartu nahi. Enteratu behar gara kontseilu errektorean bazkide laguntzaileek dituzten bi ordezkariak ez badira betetzen, nola ordezkatzan den hutsune hori. Bazkide erabiltzaile bat gehiago jar daiteke, ala hutsik utzi behar da? Argitzeko.

Kontseilu errektorerako bazkide erabiltzaileen izen-abizenen proposamena prestatzen ari dira lantaldean.

ITXIERA

Hurrengo saioa martxoaren 29an, asteazkena, 18:30etan izango da.

Etxeko lanak:

Denok: buzoneoa martxoaren 9an, 18:30etan.

Komunikazioa

- Aurkezpen ekitaldirako zereginak: gonbidapena prestatu, PPTa eta esku orria. Nork aurkeztu proposatu.
- Jubilatuekin bilera martxoaren 9an, 18:00etan.

Juridikoa

- Argitu: bazkide laguntzaileek ez badute kontseilu errektorean parte hartu nahi, nola betetzen da hutsune hori?
- Kontu korrontea sortu eta udalaren dirua sartu.
- Kontseilu errektorerako izen-abizenen proposamena prestatu.

Energia

- Komunikaziokoei lagundu proiektuaren datuak aurkezpenerako prestatzen.